

Juan Luis Zabala

# Txistu eta biok

---

XLI IRUN HIRIKO KUTXA  
LITERATURA SARIAK

---

algaida



Josemari Iriondok, Paulo Iztuetak, Felipe Juaristik, Jon Kortazarrek eta Arantxa Urretabizkaiak osaturiko epaimahaiak *Txistu eta biok* obrari eman zion XLI Irun Hiriko Kutxa Literatura Saria, euskarazko Eleberri modalitatean.



Lehenengo edizioa, 2016

© Juan Luis Zabala, 2016

© Algaida Editores, 2016

Avda. San Francisco Javier, 22

41018 Sevilla

Telefonoa 95 465 23 11. Telefaxa 95 465 62 54

e-mail: [algaida@algaida.es](mailto:algaida@algaida.es)

ISBN: 978-84-9067-553-3

Lege gordailua: SE. 413-2016

Espanian inprimatua-Printed in Spain

Eskubide guztiak gordeta. Legeak lan honen edukia babestu eta kartzela zigorrak edota isunak eta kalte eta galerakatik kasu bakoitzean egoki izango diren indemnizazioak ezartzen ditu literatur, arte zein zientzi lana edo beronen eraldaketa, interpretazioa edo artezko exekuzioa edozein eratako euskarritan finkatuta edo edozein eratako bidez komunikatuta, erreproduzitu, beretu, banatu edo agirian komunikatuko dutenentzat.

## AURKIBIDEA

1. Txisturen gaitza .....	13
2. Ez naiz txakur-jabe sentitzen .....	15
3. Kume txiki, iletsu eta goxoa .....	17
4. Txistu nire herren txiki bat da .....	20
5. O dia da morte de José Saramago .....	23
6. José Saramago eta txakurrak .....	26
7. Futbola eta Radio Marca nire baitan .....	29
8. Txisturen begirasuna .....	31
9. Ezusteko aurkikuntza Artelekuko atarian .....	33
10. Bizitzak aurrera jarraitzen du .....	36
11. Txistu eta bakardadea .....	38
12. Azenarioak eta porruak .....	40
13. Kultura vs kirola: profezia batetik tiraka .....	42
14. Txistu eta Reala .....	46
15. Ondo-ondoan dugun beste mundu hori .....	49
16. Txistu eta maitasuna .....	51
17. Txistu eta biolentzia .....	53
18. Ez kulturari eta ez kirolari .....	55
19. Liburu honi buruzko hiru ohar .....	57
20. Zergatik zoratu da bat-batean R. jauna? .....	58
21. Txistu eta literatura .....	62
22. Kultura vs kirola (2): aforismo batetik tiraka .....	64

23. Zelaiarekin txakurreoan .....	68
24. Xabier Montoiaren hitzak egunkarian .....	70
25. Rafael Chirbesekin solasean .....	72
26. Oinez eta Txisturekin .....	74
27. Askatasunak itxoin egin beharko du .....	76
28. Adrian Craciunescuren itzala .....	78
29. Karolinarekin solasean .....	80
30. Susmagarria naiz .....	83
31. Txistu eta Txomin Enea .....	85
32. Txistu eta lokatza .....	88
33. Txistu eta konpainia .....	91
34. Robert Mitchumen hitzak telebistan .....	93
35. Txistu eta frustrazio sexuala .....	95
36. Txistu eta etxezuloak .....	98
37. Dei artegagari bat gauaren erdian .....	100
38. Karolinaren etxean .....	102
39. Damuaren eta zalantzaren mende .....	105
40. Kezka literario bat .....	107
41. Txistu eta elurra .....	109
42. Nire bizitza futbol partida gisa .....	111
43. Erdaltzale bat! .....	113
44. Ume erkinaren metafora .....	118
45. Guardia zibilak Artelekuko atarian .....	120
46. Guardia Zibila dela eta .....	122
47. Gutun artegagari bat .....	126
48. Bi aldetatik mehatxatua .....	127
49. Karolinarekin ohean .....	128
50. Txistu eta adina .....	130
51. Hitzordua bordelean .....	135
52. Azenariotik pendrivera .....	139
53. Txistu eta jantxakurrak .....	144
54. Txistu eta existentzialismoa .....	148

55. Karolinarekin ohean (2) .....	150
56. Luis Buñuelen 'El ángel exterminador' filmean bezala ..	154
57. Reala eta biok .....	156
58. Nor da kulturaren beldur? .....	159
59. Susmopean berriro .....	162
60. Artelan bateko parte .....	163
61. Artista batzuen enegarren erokeria .....	166
62. Arte garaikidea eta biok .....	168
63. Askatasun sortzaile beti besterena .....	171
64. Txistu eta 'flâneurra' .....	173
65. Mafia kutrea erasoan berriro .....	175
66. Karolinarekin ohean (3) .....	176
67. Betondo ubela eta bestondo itzela .....	179
68. 'Bye bye gizontxo' .....	181
69. Ukabilkada moralaren ondoren, ukabilkada fisikoa	185
70. Gogo-jardunak txakur baten konpainian .....	188
71. Inori jakinarazi gabeko erabakia .....	192
72. Filmetakoen gisako autoen arteko jazarpen bat .....	193
73. Beldurra hezurretan apopilo .....	196
74. Karolinarekin ohean (4) .....	198
75. Zelaiaren etxean .....	200
76. Kezkatuta baina blindatuta .....	202
77. Txistu, nire bigarren familia .....	205
78. Karolinarekin ohean (5) .....	207
79. Txistu eta kontraesanak .....	209
80. Artelekuko ataria Arteleku gabe .....	211
81. Beheragokorik gabeko beheraino .....	214
82. Aitormenerako autoelkarrizketa .....	217



«Gutxi ni bezain erdipurdikorik»

(Lisa Beitia, *Hemen ere ez*)

«Ez zara besteek uste dutena,  
agian zeuk uste duzuna ere ez»

(Anari, *Zure aurrekari penalak*)





## 1. TXISTUREN GAITZA

**G**URE ETXEKO TXAKURRAK GAITZ DEGENERATIBO larria duela jakin dugu gaur: ornoarteko espondilitisa. Oraindik sei urte ere ez dituen arren, haren hezurak hamabi urteko txakur batenaren antzekoak omen dira, albaitariak —egin dizkion erradiografiak erakutsiz— azaldu digunez. Hilgarria ez izanagatik, sendabiderik gabeko gaitza da. Bizkarrezurrean estutu mingarriak eragiten dizkio tarteka, eta pixkanaka-pixkanaka —ikusteko dago zein abiadura edo erritmotan— okerrera joko du ezinbestean. Bien bitartean, askotariko herniak izateko arrisku handia izango du. Pilula batzuk dauzkagu —*Proglycan*—, min handia duenean emateko, baina gaitza sendatzeko tratamendurik ez dago.

Txakur gazte eta osasuntsua zela uste genuena uste baino lehen elbarritu eta zahartuta ikusiko dugula geureganatu behar izan dugu emazteak eta biok. Semeak ere bai, baina lau urte baino ez ditu, eta ez da albistearen larritasunaz ohartu.

Neuk ere, lehen kolpean, zalantzak izan ditut albistearen benetako tamainaz. Larria da, bai, pena ematen du egunero etxean dugun lagun horren etorkizuna uste zitekeena baino kaxkarragoa eta gogorragoa izango dela jakiteak; laburragoa ere bai akaso. Baina... txakurra da! A zer distantzia! A zer diferentzia! A zer lasaitua! Atsekabetu egin nau albisteak, baina ez nau lur jota, umorerik gabe eta ezertarako gogogabetuta utzi. Normaltasun osoz egin diet aurre eguneroko zereginei. Txakurra da, eta eskerrak!

## 2. EZ NAIZ TXAKUR-JABE SENTITZEN

**A**RTZAIN-TXAKURRA DA TXISTU. BAINA HAREN EGUNEROKO bizimoduan ez du eragin handirik horrek. Bere jatorri genetikoari omen dagozkion otsoaren arrastoak erabat galduak baldin baditu, txakur orok bezala, artzain-txakurrarenak ere ez dauzka oso agerian. Funtsean *pisutxakurra* da, kaleko pisu batean bizi denez. Arra da, eta ezagun du, inguruan araldian dagoen txakur eme bat egokitzen zaion bakoitzean ederki aztoratzen eta asaldatzen baita. Baina gainerakoan ar izate horrek ez du eragin handirik Txisturen eguneroko bizimoduan, gure begietara behintzat.

Bost urtetik gora dira Txistu gure etxean bizi dela, txakurkume koitadu beldurti eta jolasti bat zenetik. Baina oraindik ere lotsa sentiarazten dit txakurra daukadala esateak, eta uste dut beti lotsaraziko nauela. Ez da espezieen arteko hierarkizazio antropozentriko zapaltzailearen aurkakoa naizelako edo antzeko ezerengatik. Berez, ez dut ez gaitzesgarriztat eta ez meritutzat txakur baten jabe izatea. Ezta lotsagarriztat ere, nahiz eta txakur hori pisu-

txakurra izan. Beste bat da auzia. Lisa Beitiaren *Hemen ere ez* egunkari pertsonaleko pasarte bat ekarriko dut hona nire sentimendua azaltzeko: «Besteak ikusita, neure ondorioak ateratzen ditut. Baina besteek ni ikusita ateratzen dituzten ondorioak okerrak iruditzen zaizkit beti». Berez ez naizena naizelako irudia emateak lotsarazten nau, berez ez naizena naizela pentsarazteak. Txakur bat daukadala esaten dudan bakoitzean arrotz sentitzen dut neure burua, edo neure buruaz ematen ari naizen irudia. Ni ez bainaiz txakur-jabe sentitzen.

Txistu gure —eta horrenbestez nire— txakurra izatea bizitzan egokitu zaidan zirkunstantzia bat da, baina neuk inondik ere nahi edo bilatu gabekoa, are nahi gabekoa ere baina dagoeneko saihetsezina. Anomalia bat, tara bat, akats bat.

### 3. KUME TXIKI, ILETSU ETA GOXOA

**S**EMEA JAIO BAINO URTEBETE LEHENAGO EKARRI genuen txakurra etxera, horretarako inolako asmorik gabe, ezustean, kasualitatez, inpentsan. Gure etxe azpiko auto tailerreko Mikel mekanikariari zor diogu Txistu ezagutu izana. Animaliazale porrokatua da Mikel. Askotan tailerreko lana utzi eta zerura begira egoten da, prismetikoekin ere bai batzuetan, txoriak nola pasatzen diren ikusteko. Etxera gentozela erakutsi zigun Txistu, ekaineko eguerdi zeru-argi batean, artean asko jota pare bat hilabeteko kumea zela, zikin eta izutua, dardara batean.

—Ijito batzuek utzi didate hemen —azaldu zigun Mikelek, gaztelaniaz, erdalduna baita—. Ez du jaberik eta jipoi batzuk hartua izan behar du, aise izutzen baita. Gutxienez garbi-pasada bat emango bazeniotte etxean... Ikusiko dut gero zer egin daitekeen berarekin. Eta zeuek etxerako hartu nahiko bazenute, primeran!

Etxeko bainuontzian garbitu ondoren, emazteak galdetu zidan ea zer iritziko niokeen txakurra etxean har-

tzeari. Kume txiki, iletsu eta goxoa genuen eskuetan; hezurrik ere ez zeukala zirudien, hain zen leuna kanpotik laztandutakoan. Bagenekien hura etxean hartzea ez zela ahuntzaren gauerdiko eztula izango, baina nik esan nion ardura nagusia berak hartzen baldin bazuen nik ez niola oztoporik jarriko, eta lagundu ere egingo niola, ahal nuen neurrian, horrek ekarriko zizkigun zereginetan. Nahikoa izan zen Txistu gure bizitzan sar zedin, indar handiz eta luzerako. Ez nion kasurik egin Kaskazurik bere buruari jarritako bertsoetan ematen duen gaztigu zuhurrari: «obe da zer datorren / konsideratzia / nolanai artzekua / ez da gurutzia».

Pirinioetan opor eder batzuk pasatu berriak genituen emazteak eta biok, eta egun batzuk genituen oraindik ere libre, bakoitza bere lanera itzuli baino lehen. Nik Pirinioetako opor haietan Tourmaleteko mendatea bizikletan igo izanaren poz ergel baina betea gorputzaren zokondo guztietara zabaldua neukan artean ere, droga alaigarri eta bizipoz-emaile iraunkor baten antzera. Uste dut bolada hartako aldarte onak eragin handia izan zuela hala emaztearen erabakian nola nik emandako ametoan. Urtebete geroago guraso egingo gintuen bidea ere —gizakume baten arduradun—, orduantxe uste dut hasi ginela bete-betean urratzen.

Mateo Txistu ehiztari alderrai mitologikoaren omezez jarri genion Txistu izena txakurrari. Baita ere orduan, artean kume txiki bat izaki, ziztu bizian ibiltzen zelako batetik bestera jolasean, gelditu gabe.

Hala ere, batzuetan —bereziki pertsona baten antza hartzen duenean edo pertsona batenaren moduko tratua

ematen diogunean— Monsieur Le Chien deitzen diogu, bide batez ezizen hori erabiltzen duen komikigile frantsesa omenduz, *La Fontaine de Médiocrité* albumaren egilea.